

**Segurako Udaleko eta Mutiloa-Zalduondo-Zerain udal elkarteko Idazkaritza
lanpostuak bitarteko funtzionarioek betetzeko hautaketa prozesua**

(2020/06/24ko GAO, 118. zk.):

Goian aipatu hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2021eko martxoaren 9ko bileran, erabaki hau hartu du, besteak beste:

Hautaketa prozesuan hirugarren postuan gelditu den Aitziber Latasa Sorondok, 2021eko martxoaren 8an, Mutiloa-Zalduondo-Zerain udal elkarteko Idazkaritza lanposturako izendatua izateari uko egin dionez, azken kalifikazioaren arabera laugarrena den izangaiari, **Edurne Ugalde Arrutiri**, 5 egun naturaleko epea ematea deialdia arautzeko hamaikagarren oinarrian aurreikusi dokumentazioa aurkezteko; hau da: **2021eko martxoaren 10etik 15era arte** (biak barne). Izangai hau Mutiloa-Zalduondo-Zerain udal elkarteko Idazkaritza lanposturako proposatuko da.

Ezinbesteko kasua tartean egon gabe ez baditu aipatu agiriak epe barruan aurkezten, aurkeztutako agirien arabera ez badu betetzen bigarren oinarrian ezarritako baldintzetakoren bat, edo ez badu lanpostuari dagozkion zereginak gauzatzeko behar den gaitasun fisikoa edo psikikoa, ezingo zaio bitarteko funtzionario izendatu; eta baliogabetuta geratuko dira egindako jardunbide guztiak.

Seguran, 2021eko martxoaren 9an.

Epaimahai kalifikatzaileko idazkaria,

Sin.: Diego Tocina Casales.

